



2020-2021 IKASTURTEKO

MATRIKULA

IZEN-ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....POSTA KODEA:.....

JAIOTZE DATA:.....ADINA:.....

TELEFONOA / MUGIKORRA:.....

E-MAILA:.....

IKASTETXEA, HERRIA ETA IRTEERA ORDUA:.....

.....

ESKAITZEN DIREN ARLOAK

Musika tailerra (5 urtetik 7 urtera)

Hizkuntza musikala

MUSIKA TRESNAK (en erdian 1 zenbakia ipini gehien interesatzen zaizunari eta 2 zenbakia, ordekoari; hartara, 1 zenbakiarekin jarri duzun ikasgaiaren lekurik geratuko ez balitz, 2 zenbakiarekin adierazitakoa hartzeko aukera legoke. Ikasleak 2. Instrumentua nahi ez badu eta 1. Plazak izena eman ahala asignatuko dira. Eta plaza kopurua amaitzen denean itxaron-zerrendan sartuko dira. Honetaz gain, ikasgaiaren iraupena ere aukeratu beharko da).

Perkusioa		Zeharkako flauta	Klarinete a	Bateria	Biolina
Gitarra klasikoa		Saxofoia	Pianoa	Alboka	Tronpeta
Gitarra elektrikoa		Bonbardinoa	Txistua	Txalaparta	
Baxua		Tronboia	Trikitixa	Panderoa	

Orduko erdiko saioa	Hiru ordu laurdeneko saioa
---------------------	----------------------------

IRAKASKUNTZEN ANTOLAKETA

	IKASTAROAK	IKASGAIA
I. MAILA	Tailerria (5-7 urte)	Hizkuntza musikala (2 saio)
II. MAILA	1. zikloa (1. eta 2. mailak)	Hizkuntza musikala (2 saio) + Musika tresna (saio bat)
	2. zikloa (3. eta 4. mailak)	Hizkuntza musikala (2 saio) + Musika tresna (saio bat)
	3. zikloa (5. eta 6. Mailak)	Hizkuntza musikala (saio 1) + Musika tresna (saio bat) +Talde instrumentala (saio 1)
OINARRIZKO EGIAZTAGIRIA		
III. MAILA	1. ikastaroa	Musika tresna (saio 1) + talde instrumentala
	2. ikastaroa	Musika tresna (saio 1) + talde instrumentala

MATRIKULAZIO ARAUAK

Matrikula orria entregatzeko epea:

2020ko maiatzaren 11etik ekainaren 5era (biak barne).

Ikasle guztiak epearen barruan egin beharko dute matrikula. Matrikula epez kanpo eginez gero, plaza galdu egingo da, eta Musika Eskolak itxaron zerrendako beste ikasle bati emango dio.

Matrikulazioa:

E-mailez:ertxiamusikaeskola@yahoo.es

Telefonoz: 655722150

Arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara.

Matrikulazio orriarekin batera ordainketaren ziurtagiria e-mailez bidali. (Matrikula Berriak)

Ordainketa:

Matrikulazioa: 17,50€. (ikasle berriek bakarrik)

Matrikulazioaren ordainketa egiteko kontua: KUTXABANK K.K. 20955033111062922835

BAJA JAKINARAZTEA

Behin **ikastaroa hasi eta gero**, baja eman nahi duen ikasleak, **baja orria bete eta idazkaritzari jakinarazi** beharko dio.

Ondorengo epe hauek errespetatuko dira:

- **Iraila eta abendua bitartean jakinarazitako bajak (biak barne): Abendua bitarteko kuotak** ordaindu beharko dira, **azken hau barne.**
- **Urtarrila eta martxoa bitartean jakinarazitako bajak (biak barne): Martxoa bitarteko kuotak** ordaindu beharko dira, **azken hau barne.**
- **Apiriletik aurrerako bajak: kuota guztiak ordaindu beharko dira.**

2020-2021 IKASTURTERAKO TARIFAK

Hizkuntza musikala= 32,75 €

Panderoa= 20,15€

Beste instrumentuak ordu erdiko saioak= 32,75 €

Beste instrumentuak hiru ordu laurdeneko saioak= 48,50€

Hizkuntza musikala + Instrumentua (1/2 saioa) + Talde instrumentala= 61,50€

Hizkuntza musikala + Instrumentua (3/4 saioa) + Talde instrumentala= 74.80 €

Instrumentua (½ saioa) + Talde instrumentala= 48,50 €

Instrumentua (3/4 saioa) + Talde instrumentala= 60,75 €

Talde instrumentala soilik= 20,15 €

Familia ugariei automatikoki % 5eko deskontua egingo zaie, hirugarren seme-alabari % 15ekoa eta laugarrenari %100ekoa, baldin eta guztiak eskolan matrikulatuta badaude.

ZESTOAKO “ERTXIÑA MUSIKA ESKOLA”
Barne araudiaren laburpena
(2020/2021 ikasturtea)

MUSIKA ESKOLAREN ERREGIMENA

Indarrean dagoen musika irakaskuntzaren araudiak bi erregimen mota zehazten ditu:

- **Irakaskuntza arautua:** Kontserbatorioetan egiten dena, eta musikari profesionalak izan nahi dutenei zuzendua.
- **Irakaskuntza ez arautua:** Musika eskoletan ematen dena, izaera askeagoa eta pertsonalizatuagoa du. Musikari ez profesional onak izan nahi duten ikasleei zuzendua.

“Ertxiña Musika Eskola” bigarren multzokoa da.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

- Musika eskolako 1., 2. eta 3. mailak eskaintzen ditu.
- **Musika Eskolan hasteko gutxienez 5 urte eduki beharko ditu ikasleak;** horixe baita 1. mailan edo hasierako mailan eskolak ezarritako adina.
- 2. mailan hasten dira musika tresnaren eta hizkuntza musikalaren ikasketak.
Tailerrean hasten diren ikasleek instrumentuak urte bat lehenago aukeratu ahal izango dute, hau da, 7 urterekin
- Instrumentu guztiak solfeoarekin batera egin behar dira.; panderoa ezik. Hala ere, nahiz eta gomendagarriena ez izan, II.mailako 1.Zikloa bukatu ostean, solfeorik gabe, instrumentuarekin soilik jarraitzeko aukera izango du ikasleak.
- **Ikasketa indartua:** 16 urte bitartean, ikaslearen gaitasuna, borondatea eta saiakuntza kontuan izanik, bere aurrerapena indartu behar baldin bada erregimen arautu batean sartu ahal izateko, Musika Eskolak eskainiko dio Erdi Mailako edo Goi Mailako edozein

ziklotako sarrera-probarako eskatzen diren ezagupenak bermatzeko beharrezkoa den heziketa.

DIPLOMA

II MAILA: OINARRIZKO EGIAZTAGIRIA (oinarrizko musika prestakuntza).

Maila horretako ikasgaiak derrigorrezkoak dira egiaztatzea lortu ahal izateko.

III MAILA: DIPLOMA INSTRUMENTALA (maila ertaina)

Maila instrumental ertaina (289/1992 Dekretua, musika eskolen funtzionamendua arautzen duena) erdiesten duten ikasleentzat. Maila horretako ikasgaiak derrigorrezkoak dira egiaztatzea lortu ahal izateko.

ARAU OROKORRAK

- Eraikina, instalazioak eta eskolako materiala behar den moduan erabili eta zaindu egingo dituzte ikasleek. Musika-tresnari kalterik sortu badiote, konpondu egingo dute.
- Zuzendariak edota irakasleak eskatzen dionean Eskolak antolatutako ekintzetan parte hartuko du ikasleak.
- Gomendagarria da Eskolak antolatutako kontzertu eta entzunaldietan parte hartzea. Bai parte hartuko duen ikasleentzat, bai irakasleek aukeratutako beste ikasleentzat ere. Horien entseguetara joatea ere derrigorrezkoa izango da.
- Kontzertuak eta entzunaldiak dauden egunetan 17:00etan bukatuko dira klaseak.

TXOSTENAK

- Musika tresnako irakasleak tutore arituko da eta berak emango dizkio ikasleari ebaluazio txostenak. Ikaslearen gurasoek sinatu ondoren, berriro irakasleari emango dizkio ikasleak.
- Txostenarekin batera irakasle bakoitzaren tutoretza ordutegia emango zaie, zalantzak argitu nahi duten gurasoek tutorearekin hitz egin ahal izateko.
- Ikasturte honetan hiru hilabete behin emango dira txostenak.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA

- Jendurreko ordutegia 16:30etik 19:00etara izango da.
- E-posta: ertxiamusikaeskola@yahoo.es
- Tfnoa.: 655722150